

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, 2024an erakunde pribatuek Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística de entidades privadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, durante el año 2024.

Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren egitekoa da Bizkaian turismo-sektorea bultzatzea, hiru ardatz nagusi hauen inguruan aurreikusitako helburuak lortzeko behar diren jarduketa guztiekin, lankidetzak, jasangarritasuna eta digitalizazioa.

La Dirección General de Turismo del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia tiene por misión el impulso del sector turístico en Bizkaia, con todas las actuaciones que se determinen necesarias para lograr los objetivos previstos en torno a tres ejes fundamentales, la cooperación, la sostenibilidad y la digitalización.

Era berean, Turismoaren 2030eko Estrategiaren garapena sustatzen du, pertsonak, jasangarritasuna, ekonomia eta sektorea sortzea, digitalizazioa eta gobernantza-eredua kontuan hartuta.

A su vez, promueve el desarrollo de la Estrategia de Turismo 2030 atendiendo a las personas, la sostenibilidad, la generación de economía y sector, la digitalización y el modelo de Gobernanza.





Misio horren esparruan, onartu nahi den foru dekretuaren xedea da entitate pribatuei laguntzea turismoa erakartzeko ekitaldiak egin ditzaten, baldin eta:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomiko positiboa badute.

b) Bilbao Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzen badute, Estatu mailan zein nazioartekoan.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoan bisitarien eta gaualdien kopurua handitzen badute.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak bi laguntza-ildo aurreikusten ditu: bata, Bizkaia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatzeko eta Bilbao Bizkaia 2023 Turismo Estrategia garatzeko, eta, bestea, Bizkaiko turismo-sektorea indartzeko, Bizkaiko eskualdeetan ekitaldi interesgarriak bultzatzeko.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto apoyar a las entidades privadas para la realización de eventos de atracción turística que:

a) Generen impacto social y económico positivo en las comarcas del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Contribuyan a consolidar el posicionamiento turístico de Bilbao Bizkaia tanto a nivel estatal como internacional.

c) Incrementen el número de visitantes y pernoctaciones en el Territorio Histórico de Bizkaia.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo prevé dos líneas de subvenciones, una destinada a la promoción de Bizkaia como destino turístico sostenible y desarrollo de la Estrategia de Turismo Bilbao Bizkaia 2023 y otra referida al fortalecimiento del sector turístico de Bizkaia, impulso de eventos de interés en las comarcas de Bizkaia.

II

Proposatutako xedapen orokorraren xede den gaiari buruzko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikuluan xedatutakotik ondoriozta daitekeenez. Artikulu horretan ezartzen denez, *“Foru Aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzak, gainerako administrazio publikoek*

II

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que *“es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo*





arlotan horretan dituzten eskumenen arabera.”

con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.”

III

Foru dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren printzipioei erantzuten die.

Bestalde, kontuan hartu da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa (63/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardueraren eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen), eta “Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko gida” delakoan xedatutakoa (16/2018 Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko Foru Dekretuaren bidez onartua).

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea. Horregatik, dekretuan genero ikuspegia txertatu da, hura eratzean zein aplikatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación.

Por otra parte, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

A su vez, desde la Diputación Foral de Bizkaia se considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres, por ello, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto





Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala.

Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Dekretu horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dira.

refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las directrices que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

IV

Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuarekin bat etorriz, Foru Dekretu hau aurretiazko kontsulta publikoaren eta jendaurreko informazioaren izapideen pean jarri da.

Era berean, araudi hau prestatzerakoan honako txosten hauek egin dira:

1. Genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Txostena Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioak.
5. Kontrol ekonomikoaren txostena.

IV

De conformidad con el Decreto foral 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, el presente Decreto Foral ha sido sometido a los trámites de consulta pública previa y de información pública.

Igualmente, en la elaboración de la presente normativa se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.





6. Legezketasunari buruzko txostena.

6. Informe de legalidad.

V

V

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak estatu-laguntzak dira; izan ere, entitate onuradunek jarduera ekonomiko bat egiten dute, hau da, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzea. Hala ere, salbuetsita daude Europako Batzordeari alde aurretik jakinarazteko betebeharretik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren arabera.

Las subvenciones previstas en estas bases constituyen ayudas de estado ya que las entidades beneficiarias ejercen una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado. No obstante, están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas minimis.

VI

VI

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketari, Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua xedatzen du foru-diputatuei dagokiela Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzea, onar ditzan, bere sailari dagozkion gaiei buruzko foru-dekretuaren proiektuak. Kasu honetan, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatuari dagokio foru dekretuaren proiektu hau proposatzea.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo proponer este proyecto de decreto foral.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la





onesteko eskumena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari, Foru Dekretu bidez (aldeaz aurreko zerbitzu juridikoaren txostenarekin).

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Erregelamenduaren 41.1 artikulua oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko aukera ezartzen du, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio hura egintza bakar batean onartzeko eskumena.

Horregatik guztiatik, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau

Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico.

Por su parte, el artículo 41.1 del Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, correspondiendo al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación en un solo acto.

Por todo lo anteriormente expuesto, a iniciativa de la Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

HAUXE XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones.*

Onartu egiten dira Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, 2024an entitate pribatuek Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, destinadas a la realización de eventos de atracción turística de entidades privadas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el año 2024.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu honetan aurreikusitakoa garatu, gauzatu

1. Se faculta a la diputada de Transportes, Movilidad y Turismo para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación





eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan, dirulaguntzen esleipena barne.

de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la adjudicación de subvenciones.

2. Era berean, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko edo ixteko, baldin eta gorabehera teknikoren batek eragotzi egiten badu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua, edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada.

2. A su vez, se faculta a la diputada foral de Transporte, Movilidad y Turismo para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dirulaguntzatarako deialdi berriak irekitzeko, baldin eta aurrekontuko baliabideak agortzen ez badira.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean”.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Bilbon, 2024ko ekainaren 13an

En Bilbao, a 13 de junio de 2024

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko ahalduna / La diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo. SONIA PÉREZ EZQUERRA

Ahaldun Nagusia/La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA





Aurkibidea:

Índice:

I. TÍTULO. Xedapen orokorrak

TÍTULO I. Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objeto de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak.*

Base 2. *Definiciones.*

3. oinarria. *Entitate onuradunak.*

Base 3. *Entidades beneficiarias.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Gauzatzeko epea.*

Base 6. *Plazo de ejecución.*

7. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 7. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

8. oinarria. *Aurrekontu-kredituak.*

Base 8. *Créditos presupuestarios.*

II. TITULUA. Araubide juridikoa

TÍTULO II. Régimen jurídico

9. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Base 9. *Normativa aplicable.*

10. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Base 10. *Procedimiento de concesión.*

11. oinarria. *Organo eskudunak.*

Base 11. *Órganos competentes.*

III. TITULUA. Eskabideak eta prozedura

TÍTULO III. Solicitudes y procedimiento

12. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea.*

Base 12. *Lugar, forma y plazo de presentación de las solicitudes.*

13. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

Base 13. *Documentación a presentar con la solicitud.*

14. oinarria. *Eskabidea zuzentzea eta hobetzea.*

Base 14. *Subsanación y mejora de la solicitud.*

15. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Base 15. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

16. oinarria. *Ebazpena.*

Base 16. *Resolución.*

17. oinarria. *Ez onartzearen ondorioak.*

Base 17. *Efectos de la no aceptación.*





18. oinarria. <i>Errekurtsoak.</i>	Base 18. <i>Recursos.</i>
19. oinarria. <i>Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.</i>	Base 19. <i>Modificación de la resolución de concesión.</i>
20. oinarria. <i>Dirulaguntza ordaintzea.</i>	Base 20. <i>Pago de la subvención.</i>
21. oinarria. <i>Estatuko laguntzen metaketa.</i>	Base 21. <i>Acumulación de ayudas de Estado.</i>
22. oinarria. <i>Laguntzen bateragarritasuna.</i>	Base 22. <i>Compatibilidad de las ayudas.</i>
23. oinarria. <i>Emandako dirulaguntzak argitaratzea.</i>	Base 23. <i>Publicación de las subvenciones concedidas.</i>
24. oinarria. <i>Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.</i>	Base 24. <i>Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.</i>
IV. TITULUA. Justifikazioa eta kontrola	TÍTULO IV. Justificación y control
25. oinarria. <i>Justifikazio-epea.</i>	Base 25. <i>Plazo de justificación.</i>
26. oinarria. <i>Justifikazioaren dokumentazioa.</i>	Base 26. <i>Documentación de la justificación.</i>
27. oinarria. <i>Azpikotratazioaren baldintzak.</i>	Base 27. <i>Condiciones de subcontratación.</i>
28. oinarria. <i>Entitate onuradunen beste betebeharrak batzuk.</i>	Base 28. <i>Obligaciones adicionales de las entidades beneficiarias.</i>
29. oinarria. <i>Dirulaguntza entitate onuradunaren ekimenez itzultzea.</i>	Base 29. <i>Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.</i>
30. oinarria. <i>Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.</i>	Base 30. <i>Incumplimiento y reintegro.</i>
31. oinarria. <i>Arau-haustea eta zehapenak.</i>	Base 31. <i>Infracciones y sanciones.</i>
V. TITULUA. Izapidetze elektronikoa eta datu pertsonalen babesa.	TÍTULO V. Tramitación electrónica y protección de datos de carácter personal
32. oinarria. <i>Izapidetze elektronikoa.</i>	Base 32. <i>Tramitación electrónica.</i>
33. oinarria. <i>Datu pertsonalen babesa.</i>	Base 33. <i>Protección de datos de carácter personal.</i>





Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, 2024ko ekitaldian entitate pribatuek Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko.

Bases reguladoras y convocatoria de subvenciones, destinadas a la realización de eventos de atracción turística de entidades privadas en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2024

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Dirulaguntzen deialdi honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiten laguntzea.

2. oinarria. *Definizioak.*

Aipatutako oinarrien ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

1. Baliabide turistikoak: ondasun materialak edo ez-materialak, elementu fisikoak, naturalak, sozialak eta kulturalak, erakarpen eta kontsumo turistikoa sor dezaketenak, bai eta establezimenduen azpiegiturak eta turismora bideratutako zerbitzuak ere.

2. Ekitaldi turistikoa: Aurrez antolatutako gertaera bat da, eta aurrez ezarritako denboran eta lekuan pertsona kopuru jakin bat bilduko ditu, turismo-jarduera suspertzeko helburu berari lotutako hainbat jarduera garatu eta konpartitzeko.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

Constituye el objeto de esta convocatoria de subvenciones apoyar la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Base 2. *Definiciones.*

A los efectos de las presentes bases se entenderá por:

1. Recursos turísticos: bienes materiales o inmateriales, elementos físicos, de naturaleza, sociales y culturales que puedan generar atracción y consumo turístico, así como las infraestructuras de los establecimientos y los servicios orientados al turismo.

2. Evento turístico: Es todo acontecimiento previamente organizado que reúne a un determinado número de personas en tiempo y lugar preestablecidos, que desarrollarán y compartirán una serie de actividades afines a un mismo objetivo para estímulo de la actividad turística.





3. Turismo-produktua: elementu materialen eta ez-materialen konbinazio bat da, hala nola baliabide natural, kultural eta antropikoak, bai eta erakargarri turistiko, instalazio, zerbitzu eta jarduerak ere, intereseko elementu espezifiko baten inguruan, esperientzia turistiko integrala sortuz.

3. Producto turístico: combinación de elementos materiales e inmateriales, como los recursos naturales, culturales y antrópicos, así como los atractivos turísticos, las instalaciones, los servicios y las actividades en torno a un elemento específico de interés generando una experiencia turística integral.

4. Turismo-fluxua: lurralde barruko bisitarien korranteak.

4. Flujo turístico: las corrientes de personas visitantes dentro del Territorio.

Honako hauek hartzen dira bisitaritzat:

Se consideran personas visitantes:

a) Turistak: jomuga turistikoan gaua igarotzen duten pertsonak.

a) Turistas: a las personas que pernoctan en el destino turístico.

b) Txangozaleak: gaua bertan igarotzen ez dutenak.

b) Excursionistas: a aquellas personas que no pernoctan en el mismo.

5. Turismo irisgarria: irisgarritasun-premia bereziak dituzten pertsonen (hainbat arlotan, hala nola mugikortasuna, ikusmena, entzumena eta kognizioa) modu independentean, berdintasunez eta duintasunez ibiltzeko aukera ematen dien turismo mota, modu unibertsalean diseinatutako produktu, zerbitzu eta turismo-inguruneen eskaintzari esker.

5. Turismo accesible: aquella forma de turismo que permite a las personas con necesidades especiales de acceso (en distintas dimensiones, entre ellas las de movilidad, visión, audición y cognición) funcionar independientemente, con igualdad y dignidad, gracias a una oferta de productos, servicios y entornos de turismo diseñados de manera universal.

6. Turismo inklusiboa: pertsona guztiek, beren gaitasunak, generoa, arraza, sexu-orientazioa, maila sozioekonomikoa edo beste edozein zirkunstantzia espezifiko pertsonal gorabehera, esperientzia turistikoez gozatzeko aukera-berdintasuna izatea bermatzea du helburu.

6. Turismo inclusivo: busca garantizar que todas las personas, independientemente de sus capacidades, género, raza, orientación sexual, nivel socioeconómico o cualquier otra circunstancia específica personal, tengan igualdad de oportunidades para disfrutar de las experiencias turísticas.





3. oinarria. *Entitate onuradunak.*

1. Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izan daitezke honako hauek:

a) Elkartek, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuk, baldin eta haien helburu sozialean turismo-jarduera garatzea aurreikusita badago, ekitaldiaren titularrak direnean.

b) Turismo-ekitaldi bat egiten duten enpresak, titular gisa.

Aipatutako entitateek, halaber, honako baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

a) Egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak egunean edukitzea.

c) Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12.2. artikuluan ezarritako egoeretakoa batean ez egotea.

d) Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikuluekin bat etorriz, dirulaguntza ematea arrazoitzen duen jarduera egitea, eta ez onartzea onuradun izateko baldintzak betetzen ez dituzten edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak

Base 3. *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán acceder a la condición de entidades beneficiarias de las subvenciones contempladas en el presente Decreto:

a) Las asociaciones, fundaciones y otras entidades sin ánimo de lucro en cuyo objeto social esté contemplado el desarrollo de la actividad turística, cuando sean titulares del evento.

b) Las empresas que realicen un evento turístico como titulares del mismo.

Las entidades indicadas anteriormente deberán, a su vez, cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establecen el artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

d) Que realice la actividad que fundamente su otorgamiento, de conformidad con el artículo 10.1 de Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, sin que sean admisibles las entidades pantalla de otras que no cumplan los requisitos para ser





diren beste entitate batzuen pantaila diren entitateak, hargatik eragotzi gabe azpikontratazioari buruzko oinarrian ezarritakoa.

beneficiarias o sean meras intermediarias de suministro de bienes y servicios entre terceros. Todo ello sin perjuicio de lo establecido en la base relativa a las condiciones de subcontratación.

lido horretan, eta berariaz, ez da onartuko erakunde onuradunak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, zati batean edo osorik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuen jarduerak diruz lagundu, lagundu edo babesteko erabiltzea.

En este sentido, y de manera específica, no se admitirá que la entidad beneficiaria dedique, parcial o totalmente, el importe de la subvención otorgada a subvencionar, ayudar o patrocinar actividades de otras entidades públicas o privadas.

2. Oinarri honetan zerrendatzen diren baldintzak kasu guztietan bete beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, eta eutsi egin beharko zaie dirulaguntza eman edo ez emateko ebazpenaren eta ordainketaren unean eta proiektua gauzatzen amaitu arte.

2. Todos los requisitos que se relacionan en esta base deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse en el momento de la concesión y el pago hasta la finalización de la ejecución del evento.

3. Ezingo dute deialdian parte hartu, ezta onuradun izan ere:

3. No podrán concurrir a la convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan adierazitako egoeraren batean dauden entitate publiko edo pribatuek:

a) Las entidades públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

1. Berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidea urratzeagatik administrazio-bidean, lanaren arloan edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso dutenak.

1º. Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.

2. Xedeak edo helburuak, onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.

2º. Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.





3. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea. Halaber, ezin izango dira diruz lagundu sexuagatik diskriminatzen duten jarduerak edo ekintzak.

b) Era berean, ezin izango da dirulaguntzarik eman martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 23.2 artikuluan adierazitako jardueretarako..

c) Oso larritzat kalifikatutako arau-hausteren batengatik administrazio-ebazpen irmoz zehatutako entitate publiko edo pribatuak, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

3º. Que incumplan las obligaciones establecidas en el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la presente norma foral. Asimismo, no se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo.

b) Tampoco se podrán conceder subvenciones a ninguna actividad de las indicadas en el artículo 23.2 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

c) Las entidades públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

1. Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomiko

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia que cumplan todos y cada uno de los siguientes requisitos:

a) Tengan impacto social y económico positivo en las comarcas del Territorio





positiboa izatea.

Histórico de Bizkaia.

b) Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzea.

b) Contribuyan a consolidar el posicionamiento turístico de Bizkaia.

c) Turisten eta ostatu-gauen kopurua handitzea lurraldean.

c) Incrementen el número de turistas y pernoctaciones en el territorio.

d) Publiko orokorrari irekiak izatea.

d) Estén abiertos al público en general.

e) Bizkaiko Lurralde Historikoaz haraindi ondorioak dituztenean.

e) Tengan repercusión más allá del Territorio Histórico de Bizkaia.

Ekitaldiak informazioa izan beharko du entitate sustatzailearen webgunean, sare sozialetan edo entitateak duen informazio publikoko beste edozein bitarteko, plataforma edo euskarri digitaletan.

Será necesario que el evento cuente con información en la página web de la entidad promotora, redes sociales o en cualquier otro medio, plataforma o soporte digital de información pública con que cuente la entidad.

2. Besteak beste, honako hauek ez dira izango diruz lagun daitezkeen egitateak:

2. No tendrán la consideración de hecho subvencionable, entre otros:

a) Bilerak, merkataritza-aurkezpenak xede dituzten ekitaldiak, hitzaldiak edo hitzaldi-zikloak.

a) Reuniones, eventos que tengan por objeto presentaciones comerciales, conferencias o ciclos de conferencias.

b) Lanerako prestakuntza arautuarekin edo prestakuntza jarraituarekin lotutako ekitaldiak, udako unibertsitate-ikastaroak eta ekitaldi akademikoak.

b) Eventos relacionados con formación reglada ocupacional o continua, cursos universitarios de verano y actos académicos.

c) Azterketa edo ikerketa zientifikoko taldeen lan-bilerak.

c) Reuniones de trabajo de grupos de estudio o investigación científica.

d) Helburu bakarra sariak ematea duten ekitaldiak.

d) Eventos cuya única finalidad sea el otorgamiento de premios de cualquier tipo.

e) Herri bateko jaien esparruan egindako ekitaldiak.

e) Eventos celebrados en el marco de las fiestas de una localidad.

1. Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen egitateak izango diskriminazioa eragiten dutenak sexua dela-eta edo martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen emakumeen eta gizonen

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del





berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta

texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo.

4. Halaber, ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango beste edozein jarduera, tratu berdintasunari eta diskriminaziorik ezari erasotzen badio, edo haiek sustatzen badiu, edo 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak gerta daitezen uzten badu.

4. Tampoco tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones establecidas en el Título IV de la Ley 15/2022 de, 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira indarreko araudian ezarritakoaren arabera eta modu egokian justifikaturik epe barruan egin, beharrezkoak izan eta zalantzarik gabe proiektuaren garapen normalaren eta izaeraren arabekoak direnak. Besteak beste, hauek:

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y de manera indubitada respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto, entre otros, los que a continuación se indican:

a) Ekitaldia antolatzeke, gauatzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren gastuak.

a) Los gastos necesarios para la organización, realización y promoción del evento.

b) Ekitaldia garatzeko instalazioak eta zerbitzu teknikoak muntatzea.

b) El montaje de instalaciones y servicios técnicos para el desarrollo del evento.

c) Lokalak edo beste edozein espazio alokatzea ekitaldia egiten den bitartean, betiere entitate onuradunaren egoitza soziala ez badira.

c) El alquiler de locales o de cualquier otro espacio durante la realización del evento, siempre que no sean la sede social de la entidad beneficiaria.

d) Ekitaldia egiten den egunerako eskatutako aseguruak kontratatzea. Zenbatekoa hainbanatu egingo da urteko kontratazioaren kasuan.

d) La contratación de los seguros exigidos para el día de la realización del evento. El importe se prorrateará en caso de contratación anual.





e) Ekitaldiaren publizitatea eta zabalkundea. e) La publicidad y difusión del evento.

2. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.2 artikularen arabera, egindako gastutzat hartuko da oinarri hauetan zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

2. De conformidad con el artículo 29.2 de la Norma Foral de Subvenciones, se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación determinado en estas bases.

3. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egoki eta proportzionalaren heinean.

3. Si el órgano instructor considerase que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de mercado de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da entitate onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

4. El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) será gasto subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo haya abonado efectivamente y no lo pueda recuperar o compensar.

5. Honako hauek, besteak beste, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

5. No se considerarán gastos subvencionables, entre otros, los siguientes:

a) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, araudi sektorial hori ezean, baldin merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeak bete gabe ordaindu badira.

a) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

b) Langile propioen gastuak.

b) Los gastos de personal propios.

c) Entitatearen lokalerako ondasunak eskuratzea edo konpontzea.

c) La adquisición o reparación de bienes destinados al local de la entidad.





d) Entitatearen, webgunearen edo sare sozialen mantentze-lanen aldizkako gastuak.

e) Zergak eta tasak, oinarri honetako 4. epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.

f) Entitate onuradunaren gastu arruntak (bulegoetako materiala, hornidurak, komunikazioak,...).

g) Sariak (diru-zuzkidura, garaikurrak eta dominak) eta edozein motatako opariak.

h) Gonbidapen, bazkari edo antzekoetako gastuak, diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezko gastutzat behar bezala justifikatuta daudenean izan ezik.

i) Dorsalak eta ekipazioak.

j) Merchandisinga

k) 100 eurotik beherako gastuak,

6. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, dekretu honen oinarrian azpikontratazio-baldintzei buruz ezarritakoa beteko da.

3. Eskatutako dirulaguntza emateko edo ezesteko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

4. Ebazpena jakinarazi ondoren, onuradunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute ebazpena onartzeko. Epe hori igaro eta adierazpenik egin ez bada, isilbidez onartutzat joko da.

Base 16. *Resolución.*

1. Concluida la instrucción del expediente el órgano instructor formulará la propuesta de resolución, que elevará a la persona titular de la Dirección General de Turismo. Esta, a su vez, elevará la propuesta de resolución a la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo, quien resolverá mediante la oportuna orden foral.

2. La resolución contendrá una relación ordenada de las ayudas concedidas y de las solicitudes desestimadas, con indicación en su caso de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos y de los motivos de desestimación.

Asimismo, en la resolución se indicarán aquellas ayudas que se acojan al Reglamento de minimis.

3. La resolución por la que se proceda a la concesión o desestimación de la subvención solicitada se notificará a las personas interesadas.

4. Notificada la resolución las personas beneficiarias dispondrán de un plazo de diez (10) días hábiles para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación alguna se entenderá tácitamente aceptada.





5. Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento no podrá exceder de seis (6) meses contados desde la finalización del plazo para presentar solicitudes. Transcurrido este plazo sin haberse notificado la resolución, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo.

17. oinarria. Ez onartzearen ondorioak.

Base 17. Efectos de la no aceptación.

1. 5/2005 Foru Araua garatzen duen 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 48.3 artikuluan araututako kasuarekin bat etorritik, dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza eman zaien eskatzaileak jasotzeaz eta gainerako eskabideak esanbidez ezesteaz gain, aukeran izango da zerrenda ordenatu bat jasotzea, arrazoi honengatik ezetsi diren eskaerak aipatuz: alegia, oinarri arautzaileetan onuradun izateko ezarritako baldintza administratiboak eta teknikoak bete arren, deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen zutelako. Kasu horretan, deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da.

1. De acuerdo con el supuesto regulado en el artículo 48.3 del Reglamento de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, por el que se aprueba el, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, la resolución de concesión además de contener las personas solicitantes a las que se concede la subvención y la desestimación expresa de las restantes solicitudes, podrá establecer una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones administrativas y técnicas establecidas en las bases reguladoras para adquirir la condición de persona beneficiaria, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos en la misma.

Kasu horretan, onuradunetakoren batek dirulaguntzari uko egiten badiu, dirulaguntza eman duen organoak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe, onuradunaren ondoko eskatzaileari edo eskatzaileei dirulaguntza ematea, puntuazioaren arabera; betiere, onuradunetako batek uko eginez gero, ukatutako eskabide bati erantzuteko kreditu nahikoa askatu bada.

En ese caso, si se renunciase a la subvención por alguna de las personas beneficiarias, el órgano concedente acordará, sin necesidad de una nueva convocatoria, la concesión de la subvención a la persona solicitante o solicitantes siguientes a aquel en orden de su puntuación, siempre y cuando con la renuncia por parte de algunas de las personas beneficiarias, se haya liberado





crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, diru-laguntzaren proposamena onar dezaten hamar (10) egun balioduneko epe baliodun luzaezinean. Eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organoak diru-laguntza emateko egintza emango du, eta jakinarazi egingo du.

El órgano concedente comunicará esta opción a las personas interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez (10) días hábiles. Una vez aceptada la propuesta por las personas solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

2. Epe hori igarota, uko egite oro dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzetzat joko da.

2. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

18. oinarria. *Errekurtsoak.*

Base 18. *Recursos.*

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

1. La resolución que resuelve la concesión de ayudas agota la vía administrativa y, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 114, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas, podrá la persona interesada interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo en el plazo de un (1) mes a contar desde el día siguiente a la notificación de la resolución.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean –txandaren arabera zein dagokion, hartantxe–, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bilbao que por turno corresponda, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.





3. Ezin izango dira bi errekurtsok aldi berean jarri.

3. No será posible simultanear ambos recursos.

19. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

Base 19. *Modificación de la resolución de concesión.*

1. Onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, dirulaguntza emateko ebazpenean aldaketak egiteko eskatu ahal izango diote Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuari, emandako zenbatekoa murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzea dakartenak. Aldaketa horiek baimendu egingo dira ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduketa behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Aldaketa-eskaerak, hala, gauzatzeko epea amaitu baino bi (2) hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, gutxienez. Luzatu beharreko diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago aurkeztu beharko dira aldaketa-eskaerak.

1. Las personas beneficiarias podrán solicitar a la diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de adjudicación que supongan, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros. Las solicitudes de modificación se deberán presentar con una antelación mínima de dos (2) meses a la fecha de finalización del plazo para la realización de la actividad subvencionada a prorrogar.

2. Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira edo, aldaketa horren ondorioz xede den interes publikoa lortzea eragozten ala arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

2. La diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la persona interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

3. Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak izan direla, zeintzuk

3. Cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en





ebazpena emateko kontuan hartu balira hura desberdina izatea eragin bailezaketek, eta onartzeko aldez aurreko administrazio-baimenaren izapidea bete ez bada, dirulaguntza eman duen organoak bere esku izango du aurkeztutako justifikazioa onartzea, betiere onarpen horrek ez badakar hirugarrenen eskubideak kaltetzea, eta horrek ez badu salbuesten onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenetatik.

cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

20. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Dirulaguntzak, beraz, eman eta onartu ondoren ordainduko dira, ordainketa aurreratu bakar baten bidez, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoarekin eta inolako bermerik eskatu gabe, eta, ordaindu ere, dirulaguntzari datxezkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

2. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak, dirulaguntza itzultzeko prozeduran ebazpena eman delako halakotzat jo izanik. Edozelan ere, egiaztatuko da onuradunak ez daudela honako kasu hauetan: konkurtso-deklarazioa eskatu izana; edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan izana; konkurtsoan daudelako deklarazioa eman izana; esku-hartze judizialen menpe baldin egotea; edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak izan izana eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epea artean amaitu barik egotea.

Base 20. *Pago de la subvención.*

1. El abono de las subvenciones se efectuará tras la concesión y aceptación de la misma, mediante un único pago anticipado, por el importe total de la subvención concedida y sin exigir ningún tipo de garantía, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

2. Antes de proceder al pago de la subvención se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no son deudoras por resolución de procedimiento de reintegro. Asimismo, se comprobará que las personas beneficiarias no se encuentran en algunas de estas situaciones: que hayan solicitado el concurso, que hayan sido declaradas insolventes en cualquier procedimiento, que se hallen declaradas en concurso, que estén sujetas a intervención judicial o que hayan sido inhabilitadas conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el periodo de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.





3. Egiaztatzen bada entitate onuraduna lehen deskribatutako egoeraren batean dagoela, ezingo da dirulaguntzaren ordainketa egin.

4. Emandako dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean izendatutako kontu korrontean.

3. Si como consecuencia de las comprobaciones efectuadas resulta que la entidad beneficiaria se encuentra en alguna de las situaciones anteriormente descritas, no podrá realizarse el pago de la subvención.

4. La subvención concedida se abonará mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente que se haya designado en la solicitud de la subvención.

21. oinarria. *Estatuko laguntzen metaketa*

1. Foru dekretu honetan jasotako dirulaguntzek bete egin behar dute Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

2. Erakunde onuradun batek jaso dezakeen minimis laguntza, guztira, ezin izango da 300.000 eurotik gorakoa izan dirulaguntza eman aurreko hiru urteetan, datatik datara zenbatuta.

Base 21. *Acumulación de ayudas de Estado*

1. Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

2. La ayuda total de minimis que puede percibir una entidad beneficiaria no podrá ser superior a 300.000 euros en un periodo de tres años anteriores a la fecha de concesión, computados de fecha a fecha.

22. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatuk emandakoekin, Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko entitateetakoak izan.

Base 22. *Compatibilidad de las ayudas.*

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.





2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko foru-sektore publikoko bestelako entitate batzuek edo aurrekoen % 50eko partaidetza edo hortik gorakoa duten entitateek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du gainditu, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Entitate onuradunek Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu dituztela, eta, hala eskatzen bada, egin duten itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu. Hori guztia diruz lagundutako jardueren finantzaketari buruzko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, dagokion itzulketa-prozedura hasteko.

2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia u otras entidades integrantes del sector público foral de Bizkaia o por entidades participadas al 50% o más por las anteriores.

3. El importe de la subvención concedida, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

5. Las entidades beneficiarias deberán comunicar al Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, relativo a financiación de las actividades subvencionadas, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

23. oinarria. *Emandako dirulaguntzak argitaratzea.*

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan

Base 23. *Publicación de las subvenciones concedidas.*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 38/2003, de 17 de





xedatutakoaren arabera, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean emandako dirulaguntzak argitaratu egingo dira, artikulua horretan xedatutakoaren arabera.

Era berean, dirulaguntza ematen den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailak "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratuko ditu esleitutako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, zein programa eta aurrekontu-kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo izen soziala (identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak), eta, hala badagokio, diruz lagundutako programa edo proiektuak. Urte anitzeko dirulaguntzen kasuan, emandako guztizko zenbatekoa eta urtekoen banaketa.

noviembre, General de Subvenciones mediante la publicación de las subvenciones concedidas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones según lo dispuesto en el citado artículo.

Asimismo, antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión de la subvención, el Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo publicará en el "Boletín Oficial de Bizkaia" las subvenciones adjudicadas, con expresión de la convocatoria, el programa y crédito presupuestario al que se imputen, nombre o razón social de la persona beneficiaria con su número de identificación fiscal, cantidad concedida, finalidad o finalidades de la subvención, con expresión, en su caso, de los distintos programas o proyectos subvencionados. En caso de subvenciones plurianuales, importe total concedido y distribución de anualidades.

24. oinarria. Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.

1. Entitate onuradunek proiektuaren finantzaketa publikoaren berri eman beharko dute. Horretarako, jasotako laguntza aipatu beharko dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa sartu beharko dute diruz lagundutako jardueren zabalkunde publikorako material, argitalpen edo ekitaldi guztietan.

2. Emandako dirulaguntzaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiak ekitaldiarekin duen lankidetzaren berri hedatu beharko da entitate sustatzailearen webgunean, sare sozialetan edo entitateak duen informazio publikoko beste edozein bitarteko, plataforma edo euskarri

Base 24. Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.

1. Las entidades beneficiarias deberán dar publicidad al carácter público de la financiación del proyecto mediante la inclusión, en lugar visible, del logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia, en todos los materiales, publicaciones o actos para la divulgación pública de las actuaciones subvencionadas.

2. La colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia con el evento a través de la subvención concedida tendrá la necesaria difusión e información en la página web de la entidad promotora, redes sociales o en cualquier otro medio, plataforma o soporte digital de información pública con





digitaletan.

3. Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi aurretik egin diren diruz lagundutako jarduketan kasuan, entitate onuradunek nahitaez egin beharko dute jasotako dirulaguntzaren izaera publikoaren publizitatea, lehenago deskribatutako moduan, sortutako materialetan edo geroko argitalpenetan, web-orrian, sare sozialetan, komunikabideetan edo entitateak egokitzen jotzen duen beste edozein modutan, justifikazioan hori betetzen dela egiaztatuz.

4. Ekitaldia egiten den bitartean, diruz lagundutako jarduerak euskarri fisiko bat erakutsi beharko dute lehentasunez eta une oro ondo ikusteko moduan, hala nola olanak, pankartak, publizitate-kartelak edo antzekoak, Bizkaiko Foru Aldundiak jasotako finantzaketaren izaera publikoa zabaltzeko.

que cuente la entidad.

3. En el caso de actuaciones subvencionadas que ya se hubieran realizado antes de la notificación de la resolución de concesión, las entidades beneficiarias estarán igualmente obligadas a la difusión del carácter público de la subvención recibida de la manera anteriormente descrita en materiales creados o publicaciones posteriores, página web, redes sociales, medios de comunicación o cualquier otro modo que la entidad estime oportuno acreditando su cumplimiento en la justificación.

4. Durante la realización del evento, las actuaciones subvencionadas deberán exhibir en lugar preferente y en todo momento bien visible un soporte físico, como lonas, pancartas, carteles publicitarios o similar en los que se divulgue el carácter público de la financiación recibida por la Diputación Foral de Bizkaia.

IV. TITULUA

Justifikazioa eta kontrola

25. oinarria. *Justifikazio-epea.*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza esleitzeko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko azken justifikazioa, 2025eko urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra bitarteko epean, oinarri hauetan ezarritako moduan.

TÍTULO IV

Justificación y control

Base 25. *Plazo de justificación.*

1. Las personas beneficiarias deberán presentar ante el órgano instructor la justificación final del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de adjudicación de la subvención, en el plazo comprendido entre el 1 de enero y el 28 de febrero de 2025, mediante la forma establecida en las presentes bases.



2. Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta, horrela, hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolanahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete (1) lehenago. Epea amaitu aurretik berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

2. La diputada foral de Transportes, Movilidad y Turismo podrá otorgar una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación final, que no exceda de la mitad del mismo y siempre que las circunstancias alegadas lo aconsejen y con ello no se perjudiquen derechos de terceros. Deberá solicitarse de manera inmediata a que se produzca la causa alegada y, en todo caso, con una antelación mínima de un (1) mes a la fecha de finalización del plazo de justificación. Si no se notificara resolución expresa antes de la finalización del plazo, se entenderá desestimada su petición.

3. Justifikaziorako ezarritako epea igaro eta instrukzioaren kargura dagoen organoan aurkeztu ez bada, organo horrek entitate onuradunari eskatuko dio hamabost (15) egun balioduneko epe luzaezinean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ezarritako epean justifikaziorik aurkezten ez bada, itzultzeko eskakizuna egingo da eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako erantzukizunak bete beharko dira.

3. Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado ante el órgano a cargo de la instrucción, éste requerirá a la entidad beneficiaria para que en un plazo improrrogable de quince (15) días hábiles a contar a partir del siguiente a la notificación sea presentada. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en los artículos 37 y siguientes de la Norma Foral 5/2005.

26. oinarria. *Justifikazioaren dokumentazioa.*

Base 26. *Documentación de la justificación.*

1. Onuradunak justifikazio-kontuaren modalitatea erabiliko du ezarritako baldintzak betetzen dituela eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu dituela justifikatzeko.

1. La justificación por la persona beneficiaria del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención revestirá la modalidad de cuenta justificativa.

2. Dirulaguntzaren justifikazioa Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu beharko da.

2. La justificación de la subvención deberá tramitarse a través de la oficina virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.





3. Justifikazio-kontuak honako dokumentazio hau jaso behar du:

a) Jarduketaren memoria bat, diru-laguntzaren xede diren jardueretan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duena, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Memoria ekonomiko bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren bulego birtualean jasotako inprimakiaren arabera. Honako hauek jasoko ditu:

1.- Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera eta gastuen egoera.

2.- Aurreko 1. atalean adierazitako gastuen egoera orria osatzen duen partida bakoitzerako, diruz lagundutako jardueraren gastuen eta/edo inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa aipatuz, bai eta zenbatekoa, bidaltze-eguna eta, hala badagokio, ordainketa-eguna ere. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira. Entitateak BEZari dagokionez duen egoeraren arabera, honako hau egingo da:

2.1. Gastuek Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne hartuko dute, baldin eta diruz lagundutako jarduera egiteko soilik erabiltzen diren ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeari edo inportatzeari badagokio, eta jarduera hori EZ bada zergapekoa eta salbuetsi gabea, eta, beraz, BEZa benetako kostu efektiboa bada entitatearentzat.

3. La cuenta justificativa contendrá la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, conforme al formulario recogido de la oficina virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, que contendrá:

1.º Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto o actividad subvencionada.

2.º Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado 1.º anterior, una relación clasificada de los gastos y/o inversiones de la actividad subvencionada, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas. De acuerdo con la situación de la entidad respecto al IVA procederá lo siguiente:

2º1. Los gastos incorporarán el Impuesto de Valor Añadido (IVA) siempre que correspondan a la adquisición o importación de bienes o servicios destinados, exclusivamente, a la realización de la actividad subvencionada la cual NO supone una operación sujeta y no exenta, de manera que el IVA representa un coste real y efectivo para la entidad.





2º2. Gastuetan ez da BEZa sartuko, osorik berreskuratu edo konpentsatu daitekeenean.

2º3. Gastuetan BEZaren zati bat sartuko da entitatearen jarduera hainbanaketa-arauaren mende badago; entitateak berreskuratu edo konpentsatu ezin duen BEZaren zatia barne.

Entitate onuradunak ekitaldiko hainbanaketaren behin betiko ehunekoa egiaztatu beharko du, baldin eta ez bada eskaera egin zen unean izenpetu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko egoera-aitorpenean adierazitakoaren berdina..

2º2. En los gastos no se incluirá el IVA cuando sea recuperable o compensable en su totalidad.

2º3. En los gastos se incluirá parcialmente el IVA cuando la actividad de la entidad esté sujeta a la regla de prorata, incluyéndose la parte de IVA que la entidad no pueda recuperar o compensar.

La entidad beneficiaria deberá acreditar el porcentaje definitivo de prorata del ejercicio, en el supuesto de que no fuera igual al señalado en la declaración de situación respecto al Impuesto sobre Valor Añadido que suscribió en el momento de la solicitud.

Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan jasota daudenak eta ordainketa egiaztatzen duten agiriak. Ordainketa ezin izango da egin eskudirutan. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira. Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean aurkezteko modua ematen duten formatuetan aurkeztuko dira.

4. Aurreko 2. ataleko zerrendan sartzen diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, hala badagokio.

5. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarrerren edo baliabideen zerrenda xehatua, 1. paragrafoan adierazitako diru-sarrerren egoera-orriaosatzen duten

3º Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y la documentación acreditativa del pago, que no podrá ser en metálico. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas. Se aportarán en los formatos que permitan su presentación a través de la oficina virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.

4º Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado 2º anterior.

5º Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado 1º anterior, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que hayan financiado





partida bakoitzeko, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

6. 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak, baldin eta diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikirako zenbatekoak gainditzen baditu, azpikontratazio-baldintzei buruzko oinarrian jasotzen den bezala.

4. Gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Garatutako ekintzen emaitzen panel bat, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren formularioaren arabera. Bertan, besteak beste, honako hauei buruzko datuak emango dira:

1.º Ekitaldira joan direnen kopurua eta jatorria, horien batez besteko gogobetetzea, guztiak generoaren arabera bereizita, bai eta inkesten bidez bildutako gainerako informazio garrantzitsua ere.

3.º Zeharkako eragin ekonomikoa eurotan.

5.º Ekitaldiari lotutako kultura-, gastronomia- edo turismo-jarduerak badaude.

4. Hala badagokio, ingurumen-hobekuntza jasangarriko jarduketak.

4. Ekitaldiaren edo komunikazio-estrategiaren oihartzun mediatikoa.

b) Proiektuen balorazioa estimazioetan oinarritu bada, diruz lagundutako jardueran lortutako datu errealei buruzko informazioa eman beharko da.

la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

6º Los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005 deba haber solicitado la persona beneficiaria cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías para el contrato menor, tal y como se recoge en la base relativa a las condiciones de subcontratación.

4. Además, se deberá presentar:

a) Un panel de resultados de las acciones desarrolladas de acuerdo con el formulario de la oficina virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, en la que se aportarán datos relativos entre otros a:

2.º Número de asistentes al evento y su procedencia, la satisfacción media de los mismos, todos ellos desagregados por género, así como el resto de información relevante recogida a través de las encuestas.

4.º El impacto económico indirecto en euros.

6.º Si existen, las actividades culturales, gastronómicas o turísticas asociadas al evento.

4º En su caso, las actuaciones de mejora ambiental sostenible.

5º La repercusión mediática del evento o estrategia de comunicación.

b) Cuando la valoración de los proyectos se haya basado en estimaciones deberá aportarse información relativa a los datos reales obtenidos en la actividad





subvencionada.

c) Justifikazioko jarduketa-memorian adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duten txostenak, adierazpenak eta dokumentuak.

c) Informes, declaraciones y documentos que acrediten el cumplimiento de lo expresado en la memoria de actuación justificativa.

5. Era berean, memoria bat aurkeztu beharko da ezarritako gainerako betebeharrak (dirulaguntzaren zabalkundea, gardentasun-araudia, hizkuntza koofizialen erabilera, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk) bete direla justifikatzeko, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren formularioaren arabera, eta betebeharrak horiek bete direla egiaztatzen duten txostenak, adierazpenak eta dokumentuak erantsita.

5. Asimismo, deberá aportarse una memoria justificativa del cumplimiento del resto de las obligaciones impuestas (difusión de la subvención, normativa de transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género, otras políticas sociales) conforme al formulario de la oficina virtual del Departamento Transportes, Movilidad y Turismo, adjuntando los informes, declaraciones y documentos que acrediten el cumplimiento de las mismas.

27. oinarria. Azpikontratazioaren baldintzak.

Base 27. Condiciones de subcontratación.

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat: entitate onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen badu dirulaguntzaren xedeko jardura oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak jardura diruz lagundua bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

1. Se entiende que una entidad beneficiaria subcontrata cuando concierta con terceras personas la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir la persona beneficiaria para la realización por sí misma de la actividad subvencionada.

2. Entitate onuradunak bere esku izango du jardura diruz lagundua azpikontratatzea, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100eraino. Azpikontratazio-ehuneko hori egindako azpikontratu guztien baturaren arabera kalkulatu da.

2. La entidad beneficiaria podrá subcontratar la actividad subvencionada hasta un 100 por ciento del importe de la misma. Este porcentaje de subcontratación se calcula en base a la suma de todos los contratos realizados.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratu diruz lagundutako jardueraren kostua

3. En ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de





handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Entitate onuradunak ezin izango du inola ere 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan (Pertsona onuradunek jarduera diruz lagunduak azpikontratatzeari buruzko Foru Araua da) aipatzen diren pertsonekin edo entitateekin hitzartu jarduera diruz lagunduak partez edo osoki egikaritzea).

5. Diru-laguntzaren xedea gauzatzeko mandatua hartzen duten entitateek genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

6. Azpikontrataturako jardueraren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritakoa baino handiagoa bada, pertsona onuradunak hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen horrenbeste entitate, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko —eskaintzak justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaerarekin batera— eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira aintzat; hautapena berariaz justifikatu beharko da memoria

la actividad subvencionada, no aporten valor añadido al contenido de la misma.

